



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu







¿Z ER DA MUSIKA-ESKOLA ?

“Andrés Isasi” Musika-Eskola Getxoko Udalarari loturiko erakunde autonomoa dugu eta bere helburua, udalerrian musika-kultura sustatzea da, bere funtsezko jarduera Getxoko biztanleei musika-irakaskuntza ez arautua eskaintzea delarik..



MUSIKA-ESKOLAKO EGITURA

Musika-Eskolako irakaskuntzak lau maila ditu:

	Musika eta mugimendua	Musika-tresnaren hastapenak	Musika-tresna, kantua, musikoterapia, jazz musika-tresna, jazz bat-batekotasuna	Ganbara-taldeak, Konboa, Talde instrumentalak, Korua	Lengoaia musikala	Informatika musikala	Lengoaia musikala Jazz	Armonia Jazz	Analisa
1. Maila	1, 2. eta 3.	3.							
2. Maila			1. 2. 3. 4. 5. 6.	1. 2. 3. 4. 5. 6.	1. 2. 3. 4.				
3. Maila			1. 2. 3. 4. 5. 6.	1. 2. 3. 4. 5. 6.		1.	1.	1.	1. 2. 3. 4. 5. 6.
4. Maila									

Derrigorrezkoa

Hautazkoa

1. Mailan sartzeko gutxieneko adina: 4 urte - 2. Mailan sartzeko gutxieneko adina: 7 urte.
3. eta 4. Mailetan sartzeko, 2. eta 3. Mailei hurrenes hurren dagokien jakite-maila egiaztatu beharko da.



1. MAILA: HARRERAKOA

Musika-esperientzia zabala ematea du oinarrizko helburu, ikaslearen ahalmenak aurkitzeko, aho, erritmo eta entzumena landuz, kanta didaktiko eta folklorikoetan, eta gorputzaren mugimendua eta perkusio-tresna txikien erabileran oinarriturik.

2. MAILA: HASIERAKOA

Maila honetan hasiko du ikasleak musika-tresnaren ikasketa, musika-irakaskuntzaren ardatza beratu bilakatuko delarik. Taldean musika jotzen ere hasiko da, ganbara-talde txikitik zein talde handiagotara. Irakaslearen orientazioa irizpide garrantzitsua da ikaslea jarduerara honetan parte hartzeko heldua den ala ez erabakitzeko orduan.

Ikaslearen ikaste-prozesuan aurrera egin ahal izateko funtsezko eta beharrezko euskarria, lengoia musika da.

3. MAILA: FINKATZEA

Musika-tresnaren ikasketan eta taldekako musikaren praktikan sakondu nahi duten ikasleentzako da. Izan ere, ezinbestekoa da tresna-talde baten kide izatea. Gertaera musikala hobeto ulertzeko gaitasuna ere gara daiteke, Musika-analisia irakasgaiaren bidez.

4. MAILA: JARDUERARIK GOGOKOENA

Norberaren interesa, dedikazioa eta gaitasuna dira maila honetako muga bakarrak; taldekako musikaren eta, nahi izanez gero, bakarkakoaren ikasketan sakontzeko da.




ESPEZIALITATE INSTRUMENTALAK ETA MUSIKA-TALDEAK

Hautatu duzun tresnaren ikasketak, musika-errepertorio aberats eta anitzaren bidez, adierazi eta komunikatu ahal izateko aukera emango dizu, betiere zure mailara egokituta. Lan teknikoa ikaskuntza honen parte garrantzitsua da, obra musikalak era egokian jo eta ulertzen lagunduko baitizu.

Musika-Eskolan garaturiko musika-hezkuntzak garrantzia handia ematen dio musika taldeka ikasi eta praktikatzeari. Horregatik, tutoreak egoki deritzonean, ia ikasle guztiak

biltzeko moduko musika-taldeak ditu Eskolak. Taldekako praktika hauetan, taldekako eskoletan egindako lanarekin jarraitzen dugu, hurrengo kontuei garrantzia berezia emanez: taldekako afinazioa, entzutea, soinu-balantzea, tinbrea, elkar ulertzea eta musika batera egitearen zentzua.

Eskainitako musika-tresnak eta dagozkien erreferentziazko taldeak hauek dira:



SAILA	MUSIKA-TRESNA	ERREFERENTZIAZKO TALDEA
	Biolína Biola	Biolontxelo Kontrabaxua
		Aixerrota eta Andrés Isasi Orkestrak
	Gitarra	
	Gitarra taldea	
Hari-tresnak	Gitarra elektrikoa Baxu elektrikoa Gitarra Jazz	Kontrabaxua Jazz Bestelako Tresnak (Bat-bate kotasuna Jazz)
	Konboak	
Haize-tresnak	Flauta Oboea Klarinetea Fagota Saxofoia	Tronpeta Tronpa Tronboia Tuba Perkusioa
	Banda Txikia eta Banda Gazte	
Bertako tresnak	Txistu Alboka Panderoa Acordeia	Trikitixa Txalaparta Bertako perkusioa
	Akordeoi taldea Fanfarre Txikia Korapilo Fanfarre	
Lengoaia Musiala	Lengoaia Musiala Kantua	Abesbatza Haurrak / Helduak / Nagusiak
Pianoa	Pianoa	



ENSEÑANZAS COMPLEMENTARIAS

INFORMATIKA MUSIKALA

Informatika Musikaleko eskoletan, zera ikas dezakegu: partiturak editatu eta inprimatzen, entzumen- eta erritmo-entrenamendurako ariketak egiten, soinu desberdinak nahastu, sortu eta aldatu, grabatzen, etab...

ENTZUKETA

Helduei zuzendutako jarduera da. Bere helburua, musika modu aktibo eta kontzientean entzunez, pertsonalki aberasteko eta gozatzeko ahalmena garatzea da.

Garatzen ditugun alor musikalen kopurua benetan zabala da: musika-tresna desberdinen identifikazioa, forma musikal desberdinen artean (kontzertua, sinfonia, lieda...) bereiztea, edo obra musikal desberdinen azterketa Barrokotik gaur egunera arte.

LENGOIA MUSIKALA

Lengoia Musikala ikastearen helburua, zera da: musika ulertu eta jotzeko lagunduko diguten ahots-, erritmo- eta entzumen-gaitasunak garatzea.

HARRERA

Lehen Mailaren azkenengo urtean dauden ikasleei zuzendutako jarduera da. Aukeran dauden tresna-espezialitate

guztietan izango dute saio bat ikasleek, Eskolan ikasiko duten tresnaren hautaketa errazteko asmoz.

MUSIKOTERAPIA

Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei zuzendua, jarduera soinu-musikalen bidez ikasleen alor kognitiboa, emoziozkoa, fisikoa eta harremanetako-sozialaren garapena erraztea du helburu; horretarako, ahotsa, gorputza eta erabiltzeko errazak diren musika-tresnez baliatuko gara. Musikoterapiak ahalmenak garatu nahi ditu eta gustoko esperientziak izateko aukera ematen du, musika emozioen adierazpena eta komunikazioa errazten duen tresna gisa erabiliz.

LENGOIA MUSIKALA JAZZ, HARMONIA JAZZ

Jazza ikasten ari diren ikasleei espezifikoki zuzendua, jazz-munduko lengoaiaren ikasketa espezifikoa du helburu: erritmika, eskalak, akordeak, interpretazio-estiloa, entzumen-heziketa, jazzaren historiaren oinarriak, ...guzti hau ezinbestekoa den tresna-saioan edo konboan egin beharreko praktikorako.

ANALISIA

Analisisa izeneko irakasgaiak, antzinako Grezietatik gaur egunerainoko Musikaren Historian zehar harmoniaren, kontrapuntuaren eta forma musikalaren lengoaiak izan duen eboluzioa erakutsi nahi du.

IKASLEEK IKASITAKOAREN JARRAIPENA ETA INDARTUTAKO IRAKASKUNTZA

Edozein ikastetxean ohi denez, Musika-Eskolak arreta berezia ematen dio ikasleek ikasitakoaren eboluzioari, gure ikasleen gaitasun musikalak ahalik eta hoberen garatzeko asmoz.

Atal honetan, oso garrantzitsuak dira tutoreen lana eta tutoretzak. Lehen, ikasleak zentroan izandako eboluzioaren eta orientabidearen arduraduna da gurasoekin lankidetzat estuarekin batera. Tutoretza-saioak ikaslearen garapena ebaluatzeko irakasle desberdinen bilerak dira.

Ikasleen ebaluazioa etengabea izango da, irakasleek ikasleak helburuak eta edukierak bete dituela aztertuko dutelarik. Eraitza hau ikaslearen eboluzioaren berri emango duen hiruhileroko txostenean erakutsiko da.

INDARTUTAKO IRAKASKUNTZA

Musika-Eskolaren xede orokorra zera da: edozein adineko pertsoneri heziketa musikala eskaintzea, nahiz eta bokazio profesionalik izan ez; era berean, bokazio eta gaitasun bereziak erakusten dituztenei zuzendutako orientabide- eta ikasketak profesionaletarako prestakuntza-funtzioa ere dauka.

Prestakuntza profesional honi erantzuna emateko, indartutako irakaskuntza garatu dugu Musika-Eskolan. Aukera hau kontutan hartu ahal izateko, ikasleak zenbait gaitasun erakutsi behar ditu; Gainera, ezinbestekoa da tutorearen oniritzia.

GELATIK KANPOKO JARDUERAK

Xederik garrantzitsuenetakoa zera da: ikasleak ikasitakoak argia ikus dezaten eta beraien aurrerapenak publikoki erakutsi dituzaten. Horretarako, "Andrés Isasi" Musika-Eskolak ahalegin handia egiten du mota guztietako ekintzak antolatzen: musikalak, kulturalak eta bizikidetzakoak.



Ekintza Musikalak, publikoaren aurrean ekiteko beharrezkoa den esperientzia lor dezaten, bai Eskolan bertan, bai Eskolatik kanpo. Hauen artean, Gabonetan, Aste Santuan eta Ikasturte-bukaeran antolatutako Entzunaldi Orokorrak, ikasleek hiruhileroko egindako lanaren erakusgarri, eta Barne-entzunaldiak, irakasle batek edo zenbaitek beren tresnaren inguruan antolatutakoak, dira azpimarratzekoak. Era berean azpimarratzekoak dira ikasleek Zentrotik kanpo egiten dituzten jarduerak: beste Musika-Eskola batzuekin egindako trukeak, gure herriko kaleetan eta ongintzako edo kulturazentrotan egindako saioak, Musikaldian parte hartzea...

Ekintza Kulturalak, beraien ikasketen osagarri diren ezaugarriak eskura ditzaten. Hauen artean, BOS eta EOren kontzertuetara (azken hau urteko baimenen bidez), Foru Aldundiko Organo-ziklora, Zenarruzako Musika-ziklora edo EGOn kontzertuetara joatea eta musikarekin zerikusia duten museo eta kultur-gertaerara antolatutako bisitak azpimarratu daitezke.

Bizikidetzako ekintzak (asteburuko topalekuak), ikasleek besteengandik ikas dezaten, ezaguerak eta esperientziak partekatuz.

IRAKASKUNTZAN LAGUNTZEKO ZERBITZUAK

...TEKA

Musika-Eskolako ...TEKA musikan espezializatutako biblioteka, fonoteka, hemeroteka, bideoteka, ... da eta 9.000 dokumentu baino gehiago ditu; hauek, ikasleen eskura jartzen ditugu, liburu, partitura, aldizkari, CD, bideo, katalogo, ikastaro eta lehiaketen publizitatearen kontsulta librea eta maileguaren bidez.

Horretaz gain, badugu ikerketa-gela bat, nahi duenak fondo bereizien artxiboak ikusteko aukera izan dezan. Musika-Eskolak zuen eskura jartzen ditu Andrés Isasi eta Antón Larrauri musikagileen fondoak eta Pio Lindegaard bildumagilearen Jazz-fondoa.

ADMINISTRARITZA, ATEZAINDEGIA

Behar duzunari buruz informatzeko eta aholkatzeko gaude, zentroaren jarduerak beharrezkoak dituen administrazio-, ekonomia- eta mantentze-zereginak betetzeaz gain.

Ikasgeletatik kanpo egin beharreko lanak dinamizatzen ditugu. Hauen artean:

- Ikasketa-gelen kudeaketa
- Eskola-ekintzei laguntzea
- Ikasleentzako bekak
- Urteroko Mailing-a
- Gogobetetasun-inkesta

Emanaldi eta kontzertuak: Emanaldi eta kontzertu desberdinak antolatzen ditugu urtean zehar, ez soilik gure ikasleen prestakuntzaren osagai aberasgarri modura, baizik eta udalerraren kultura musikalaren osagai dinamizatzaile modura ere. Emanaldi eta kontzertu hauen barruan ere, udalerriko ikastetxeei zuzendutako kontzertu didaktikoak (sei batezbeste) ditugu.



IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Musika-Eskolan egindako jarduera guztiek, ikasleen nortasunaren osoko garapena dute helburu.

IKASLEEN ESKUBIDEAK

- Kalitatezko irakaskuntza jasotzea, eta xede horretarako zentroan dauden baliabide materialak erabiltzea.
- Eskola-etekinari dagokionez, objektibotasunek balioetsia izatea.
- Begirunerik handiena jasotzea Musika-Eskolako profesional desberdinengandik, aproposa deritzon edozein iradokizun, kexa, erreklamazio, eskaera edo zoriona aurkezteko aukera izanik.
- Zentroaren instalakuntza eta zerbitzuak diskriminaziorik gabe erabili ahal izatea.
- Indarrean dagoen legeari jarraiki, datu pertsonalen konfidentzialsuna eta pribatutasuna bermatuta edukitzea.

IKASLEEN BETEBEHARRAK

- Eskoletara etortzea eta ikasgai bat ikasteko behar diren denbora eta baliabide materialak erabiltzea.
- Musika-prestakuntzarako ezinbesteko osagarri diren Musika-Eskolak antolatutako jardueretan parte hartzea, eta horretarako beharrezkoak diren entseuetara etortzea.
- Ordenari eustea eta Musika-Eskolako profesionalak begirune handienarekin tratatzea, Eskolak ikasleen eskura jartzen dituen instalakuntza eta ondasunak zainduz eta egokiro erabiliz.
- Helbide-, telefono- eta baku-datuaren aldaketak, baja- edo eszedentzia-eskaerak, etab., Eskolako Atezaindegian edo Idazkaritzan jakitera ematea.
- Indarrean dagoen Eskolako araudiaren arabeko tasa eta kuota desberdinak ordaintzeko beharra errespetatu eta betetzea.

Gurekin harremanetan
jartzeko:

Helbidea:

Mesedetako Kalea, 6. 48930 - Getxo

Tel: 94.464.60.11 • **Faxa:** 94.464.13.11

www.getxo.net

emaila: **aisasi@getxo.net**